



FUTBOL 7-ko ARAUTEGIA

BENJAMINEN ETA KIMU EDO ALEBINENTZAT

FUTBOL-7AREN GARRANTZIA

Futbol-7 jokorik egokiena da umeak kirol honetan hasteko.

Jokalariak egoera ugaritan ipintzen ditu euren ahalbideetara moldaturiko joko-zelai batean.

FUTBOL-7AREN EZAUGARRIAK

Futbol-7 ahalik eta gehien atxikitzen zaio Futbol-11ren arauari. Hala ere, honako atal hauetan:

- Jokoen kontrako ekintzak eta odol-gaiztoko jokoak zehatzea
- Jokoz kanpoaren araua.
- Jokalekuaren luze-zabalerak eta jokoen iraupena.
- Jokalari-aldaketak.

Arauek pixka bat aldatuta daude.

Umeentzako jokoak denez, "jokoen izpiritua" arreta bereziz zaindu behar da.

Jokoak bere bidetik joateko kontrako ekintzak zein odol-gaiztokoak zorrozki zigortzen dira, baita arbitroarenganako jarrera ez-egoki guztiak ere.

Nahita egindako falta larri oro, jokalariek bere zelai-erdian egindakoa, beraren areako 13 metroen barrutik jaurtiketa batez zehatu daiteke. Falta bat larria den ala ez interpretatzea arbitroaren erantzukizuna denez, jokalariek jakin behar dute, "arbitroa ez beste inor" dagoela gaituta eta baimenduta faltak eta asmoak epaitzeko, eta bera dela zehapenak ezartzen dituen, eta horretara ohitu behar dira jokalariek.

Egoki ikusi da, jokoz kanpo adieraztea 13 metroen barruko guneetara mugatzea.

Xedapen hori esperientzia interesgarria izan da jokoz kanpoari buruzko arauetan.


Joko-zelaia, baloia eta partiduen iraupena Kimuen eta Benjaminen ahalbideetara moldaturik daude.

1. ARAUA – JOKALEKUA

Joko-zelaia eta bere ezaugarriak honako plano honen arabera zehazten dira:



FUTBOL 7-ko ARAUTEGIA



1. LUZE-ZABALERAK

Jokalekua lauki zuzena izango da, gehienez 65 m. eta gutxienez 50 m. luze izango da, eta zabalera ez du 45 m. baino gehiago ez 30 m. baino gutxiago izango.

2. JOKALEKUA MARKATZEKO ERA

Jokalekua markatzeko, planoan adierazten den bezala, gehienez 12 cm-ko zabalera duten marra **ikuskorrek** egingo dira. Jokalekua mugatzen duten marra luzeenei alboko marrek deritze eta laburrenei, ateko marrek. Erpin bakoitzean taket kamutsak ipiniko dira banderatzeko banarekin; haien goiera gutxienez 1,50 m. izango da Jokalekuaren zabalera asean zehar erdiko marra bat egingo da. Joko-zelaiaren erdigunea nabarmenki markaturik egongo da, bertan puntu bat margotuta, eta berorren inguruan 6 m-ko erradiodun zirkunferentzia bat egingo da.

3. PENALTI AREA EDO 13 METROEN GUNEA

Joko-zelaiaren hondo-alde bakoitzean eta ateko marretatik 13 m-ra, beste marra bana egingo da, atekoarekiko paraleloak eta euren muturretan alboko marrek bat eginda. Penalti-areetan puntu bana markatuko da era ikuskorrez, ateko marra bakoitzarekiko perpendikularrean egongo litzatekeen alegiazko lerro batean eta handik 9 m-ra kokatuta. Señale horixe izango da penaltia jaurtitzeko puntua. Erdigunetzat penalti



FUTBOL 7-ko ARAUTEGIA

puntuak hartuta, area bien kanpoaldean 6 m-ko erradiodun zirkunferentzia-arku bana egingo da.

4. SAKE-MARRA

Ateekiko marra paralelo bana egingo da area bien barruan, 6 m-ko luzeradunak eta haietatik 4,30 m-ra, eta bertatik egingo da ateko sakea.

5. KORNER AREA

Erpineko banderatxoak erdigunetzat hartuta, 0,60 m-ko erradiodun zirkunferentzia-arku bana egingo da jokalekuaren barrualdean, eta bertatik aterako dira korner-jaurtiketak.

6. ATEAK

Ateko marra bakoitzaren erdian ipiniko dira atek, berorietako bakoitza erpineko banderatxo bietatik distantzia berberera eta batetik bestera 6 m-ra (barrualdeko tartea) zutoin bik eta goi muturretan lotzen dituen langa horizontal batek osatua egongo dira, azken honen beheerango ertza lurretik 2 m-ra egongo delarik. Zutoinen eta langetaren lodi-zabalerak neurri berekoak izango dira. Ateek lurrean inkaturik egon behar dute, mugimendurik egin ez dezaten. Ate eramangarriak erabili daitezke, baina goian eskatutakoa betetzen badute. Zutoinak eta langetak zuriak izan behar dira.

II ARAUA - BALOIA

Baloia biribila izango da; larruzko edo onarturiko beste edozelako ekaizko estaldura eduki behar du. Baloia egiteko, ez da jokalarientzat arriskugarri izan daitekeen inolako ekairik erabiliko.

Baloiak gehienez 65 cm. eta gutxienez 62 cm-ko zirkunferentzia izango du, eta haren pisua partiduen hasieran ez da 390 gramotik gora ez 340 gramotik beheakoa izango. Partiduan zehar ezin aldatu daiteke baloia arbitroaren baimenik gabe.

III ARAUA - JOKALARI KOPURUA

Partidua talde biren artean jokatuko da, bakoitza gehienez 7 jokalarik osatuta, eta horietarik batek atezain jokatuko du.

- Partidua hastean, talde bakoitzak gutxienez 5 jokalaria eduki behar ditu; gainerakoak gero erantsi daitezke.

- Aktan gehienez 17 jokalaria inskribatuko dira.



FUTBOL 7-ko ARAUTEGIA

- Partidua hasi delarik, nahi hainbat aldaketa egin daiteke, beti ere araei jarraiki egiten badira. Ordezturiko jokalaria egoki uste den adina bider itzuli daitezke jokora.
- Partidua jokatzen ari direla, taldeetako bat, zeinahi ere den zioa, 5 jokalar bano gutxiagorekin geratzen bada joko-zelaiari, arbitroak amaitutzat emango du partidua.
- Atezainak bere postua trukatu dezake edozein taldekiderek: aurrea arbitroari aldaketaren berri emango dio eta atezainaren elastikoa jantzi behar du. Jokoak geldirik egon behar du postu-truke hori egiteko.
- Gainerako jokalarietako edozeinek trukatu dezake postua atezainarekin, beti ere aurrea arbitroari jakinarazi zaiola eta aldaketa jokoaren etenaldi batean egiten bada.
- Jokalari bat ordeztuko delarik, aldaketa egin bano lehen arbitroari gaztigatuko zaio. Ordezkoa ezin sartu daiteke joko-zelaiari, harik eta ordeztuak berori utzi arte, eta zelaiaren erdiko marratik egin behar dute, joko etenda dagoela.
- Ordezkoen izenak partidua hasi bano lehen eman behar zaizkio arbitroari; hala egin ez baledi, ez da ordeztuko baimenik egongo.
- Hasierako sarea bano lehen egotzitako jokalaria, izendaturiko ordeztuko batek bakarrik ordeztu dezake.

Partidua hasi bano lehen nahiz hasitakoan egotzitako ordeztuko izendatua ez daiteke ordeztua izan.

- **Kategoria baxuago batetan parte hartzeko bahimena duten jokalariren bat partidua jokatzen ari bada, bakarrik hauetako bat egongo da partidua jolasten. Aulkian beste bat egongo balitz aurrekoa aldatuz zelairatua izango da.**

IV. ARAUA - JOKALARIEN JANZKERA

- 1.- Jokalariak ez dezakete, norberarentzat zein beste jokalarientzat arriskutsua izan daitekeen jantzirik ez gauzirik eraman (edozein motako bitxiak barne).
- 2.- Jokalariren oinarriko janzkera nahitaezkoa honako hau da:
 - Jertsea edo kamiseta
 - Prakak (praka termikoak erabiltzen badituzte, uniformeko praken kolore nagusia eduki beharko dute eta ez haiek bano luzeagoak).
 - Galtzerdiak, zango-babesak eta oinetakoak.



FUTBOL 7-ko ARAUTEGIA

3- Atezainak, gainerako jokariengandik eta arbitroarengandik bereiziko duten koloreekin jantziko dira.

4.- Arbitroak partiduan zehar janzkerak egoki daudela jagon behar du eta joko-zelaitik irtenaraziko dio bere janzkerako akatsen bat zuzendu behar duen jokalaria orori; ezin itzuli daiteke jokora, harik eta arbitroak egiaztatu arte hark bere janzkera behar bezala ipini duela, eta jokoaren etenaldi batean sartuko da.

V. ARAUA - ARBITROA

Partiduak artezteko, bakoitzeko arbitro bat izendatuko da. Haren eskumena eta Joko Arauek eman dizkioten ahalmenen erabilera jokalekura sartzen deneko hasiko dira eta instalazioak utzitakoan bukatuko. Haren erabakiak, jokoari dagokionez, behin-betiko izango dira.

Zehatzeko duen ahalmena jokoaren aldi baterako etenaldiren batean eta baloia jokoz kanpo dagoela egindako arau-hausteetara hedatuko da. Parte-hartzaileak heziketa-aldian daudenez, arbitroaren eginkizun nagusia jokoaren izpiritua sustatzea izango da, horretara jokariaren hezkuntzan lagunduz eta kirol jarretara eramanez, halako eraz ezen, (partiduaren jokaerak uzten dion ginoan) haiei bere erabakien azalpenak emateraino ere heldu daitekeen. Gainera, hurrengo hauek ere egingo ditu:

a) Arauak aplikatu.

b) Faltaren bat zigortzekotan, egin duen taldearen mesederako izango litzatekeela baderitzo, ez du falta hori zigortuko.

c) Gorabeherak idatziz jaso, kronometrari bezala jardun, partidua arauzko edo itunduriko iraupena izan dezan begiratu, eta istripua edo beste edozergatik gertatutako denbora-galtzeen ordainekoa gehituko du.

d) Arau-haustek gertatzen direnean, arbitroak irizpidezko eskumena du, beharrezko ikusten duenean partidua gerarazteko edo behin-betiko eteteko, dela eguraldiagatik, dela ikusleek esku hartu dutelako edo beste zio batzuegatik. Halako kasuetan, gertaerei buruzko txosten zehaztu bat helaraziko dio eskudun erakundeari, partidua zein Federakunderen jurisdikziopean jokatzen den, harexen Arautegiek adierazitako eraz eta epean.

e) Jokalekura sartzen den unetik abisatuko dio portaera ez-bidezko edo ez-duina duen jokalaria orori, baita aldi baterako (minutu 2) egotzi ere falta arintzat jotzen badu. Hala izanez gero, arbitroak errudunaren izena jakinaraziko dio eskudun erakundeari, partidua zein Federakunderen jurisdikziopean jokatzen den, harexen Arautegiek adierazitako eraz eta epean.



FUTBOL 7-ko ARAUTEGIA

- f) Ez dio, jokalariei izan ezik, bere baimenik gabe inori jokalekura sartzen utziko.
- g) **Fitxarik ez duen jokalaria, entrenatzaile, laguntzaile edota delegatu bati partiduan parte hartzea ez dio ahalbideratuko.**
- h) Jokoa etengo du, baldin begitantzen bazaio jokalaria batek lesio larriren bat izan duela; joko-zelaitik **albait** arinen atera eragingo du eta berehala berrasiko du partidua.
- i) Jokalekutik egotziko du, bere iritziz portaera odol-gaiztoarekin ari den edo joko zakar larriaren errudun den jokalaria oro, baita hizkera zantarra edo iraingarria erabiltzen duena ere, edo, abisu bat jaso edo aldi baterako egotzita egon delarik, portaera ez-bidezkoa badu.
- j) Etenaldi bakoitzaren ostean, arbitroak emango du jokoari berrekiteko agindua.
- k) Berak erabakiko du, partidurako ipinitako baloia II. Arauak eskatutakoari atxikitzen zaion.

Etxeko taldeak partiduen arbitrajearen arduraduna izango da partidura arbitrorik joaten ez bada.

VI. ARAUA - MAHAIKO LAGUNTZAILEA

Hurrengo hauek dira Mahaiko Laguntzailearen eginkizun espezifikoak:

- a) Zelaiko delegatu jardutea
- b) Partiduan zehar gertatzen diren jokalaria-aldaketak, ezarritakoaren arabera egiten diren kontrolatu eta baimentzea.
- c) Goiko atalaren arloan gertatzen diren gorabeherak eta arau-hausteak jakinaraztea arbitroari.
- d) Aulkietan area teknikoan nahiz harmailetan gertatzen diren gauza ezbidezko eta jokozelaian ondorioak edo eragina eduki ditzaketenen berri ematea arbitroari.
- e) Arbitroari laguntzea norgehiagokaren akta idazten, ikusitako gorabehera guztiak jasota geratu daitezen zainduz.
- f) Bere eskumen berezikoak ez badira ere, arbitroak ematen dizkion eginkizun guztiak.

VII. ARAUA – PARTIDUAREN IRAUPENA

UMETXOEN MAILAN, partiduen iraupena 17 minutuko 3 joko-alditan banatuta egongo da, 5 minutuko atsedenarekin joko-aldien artean. UMEEN MAILAN,



FUTBOL 7-ko ARAUTEGIA

partiduaren iraupena 20 minutuko 3 joko-alditan banatuko da, 2 minutuko atsedenarekin joko-aldien artean.

Partiduaren aktan izena emandako jokalariek guztienez joko- denbora oso batean egon beharko dira jokalekuan.

Bigarren joko denboran, derrigorrez lehenengo joko denboran parte hartu ez duten jokalariek parte hartu beharko dute, hirugarren joko denboran aldaketak askeak dira, aurreko bi joko denboretan jokalariek batek parte hartu ez badu izan ezik, azkenengo joko denboran parte hartuko du, eta ezin izango da aldatu.

Lehenengo eta bigarren joko denboretan ezin izango dira aldaketak egin, zati bakoitzaren hasieran ateratako zazpi jokalariek zelaian mantenduz, jokalariren bat lesionatuta egonda izan ezik; kasu horretan, beste taldekide batek ordezkatu du. Horrenbestez, denbora osoa jokatu duen jokalaritzat hartuko da joko-denbora horretan HAMAR (10) minutu edo gehiago jokatu duena. Halaber, azken joko-denbora bada eta jokalariek lesionatuak aurreko bietan parte hartu ez badu, zatietako batean jokatu duela joko da.

a) Arbitroak, dela aldaketa, dela jokalariek lesionatuak zelaitik atera beharra, dela denbora galdu delako, edo beste edozergatik bere iritziz zenbat denbora galdu den, hura gehitu behar dio joko- denbora bakoitzari.

b)Joko-denbora bakoitzaren iraupena luzatu egin beharko da penalti-jaurtiketa egin ahal izateko.

VIII. ARAUA - JOKOAREN HASIERA ETA BERRASTEA

Txanpon bat airera bota eta aldea igartzen duen taldeak erabakiko du partiduaren lehenengo zatian norantz erasoko duen.

Beste aldeak hasierako sakea egingo du, eta horrelaxe ekingo zaio partiduari.

Zoria aldeko izan duen taldeak egingo du bigarren zatian ekiteko hasierako sakea.

Partiduaren bigarren zatian jokatzeko, taldeek zelai-erdia trukatu dute eta, orain, lehenengo zatian defendatu duten aterantz erasoko.

Hasierako sakea egiteko, jokalariek guztienez zein bere zelai-erdian egon behar dute kokatuta. Harik eta baloia jokatu arte, hasierako sakea egingo duen taldearen aurkako taldekide jokalariek baloitik guztienez 6 metrora egon behar dute. Baloi erdiguneko puntuan eta geldirik egon behar da. Arbitroak emango du seinalea. Baloi ostikoz jota mugitzen den unean jokatu egongo da. Sakea egin duen jokalariek ezin ukitu dezake berriro baloia beste jokalariren batek jokatu aurretik.



FUTBOL 7-ko ARAUTEGIA

Hasierako sakez zuzenean lor daiteke gola, baina aurkariaren atearen kontra bakarrik.

Taldeetako batek gol egin duelarik, berrasteko sakea aurkako taldeak egingo du.

ZEHAPENA: Sakea egin duen jokalaria, beste jokalariren batek jokatu aurretik berriro ukitzen badu baloia, jaurtiketa libre emango zaio aurkako taldeari eta falta egin den lekuan bertan aterako du.

Hasierako sakea ateratzeko prozeduran beste urratzeren bat gertatuz gero, berriz egingo da hasierako sakea.

BALOA LURRERA.- Baloia jokoan dagoela, Joko Arauetan adierazita. ez dagoen beste edozein gorabehera gertatu bada, beharrezko izan den aldi baterako joko etenduraren ondoren joko berrasteko "Baloia lurrera" egingo da. Arbitroak lurrera jausten utziko du baloia joko eten den unean zegoen lekuan bertan. Jokoa berrasitatzeko joko da baloiak lurra ukitzen dueneko. Baloiak lurra ukitu orduko, jokalariren batek hura jokatu badu, edo, lurra ukitu eta ezein jokalarik ukitu barik, baloiak joko-zelaitik irteten badu, berriro egingo da "Baloia lurrera".

IX. ARAUA - BALOIA JOKOAN ALA EZ

Baloia ez dago jokoan:

Alboko nahiz ateko marra osorik zeharkatu duenean, dela lurrez, dela airez, edo joko arbitroak berak gerarazi duenean. Gainerako guztietan baloia jokoan egongo da, baita zutoinetan, langetan, nahiz erpineko taketean errebotatzen duenean ere, baldin jokalekuan geratu bada, bai halaber arbitroarengan errebotatzen duenean joko-zelaiaren barruan.

X. ARAUA - GOLA LORTZEKO

Gola lortutzat emango da, baloiak langetaren azpitik zutoinen arteko ateko marra osorik zeharkatu duenean, baldin gola aldeko izan duen taldeak aurretik Joko Arauak hautsi ez baditu.

XI: ARAUA - JOKOZ KANPO

Jokalaria joko kanpoko posizioan dago, aurkako taldearen 13 metroen gunen barruan dagoela, ateko maratik baloia baino hurbilago badago, berorren eta aipatu marraren artean aurkako jokalaria bi edo gehiago egon ezean.

Jokalaria ez da joko kanpoko posizioan egongo, baldin eta azkenaurreko jokalariren parean badago edo azken aurkako bien parean badago.



FUTBOL 7-ko ARAUTEGIA

Jokoz kanpo dagoen jokalaria zehatu egingo da, baldin, taldekideren batek baloia jokatzen duenean, bera, arbitroaren iritziz, jokoan parte hartzen, jokia nahiz aurkakoa eragozten edo posizio horredez abantaila ateratzen saiatzen ari bada.

Ez da jokoz kanpoko faltatzat hartuko, jokalaria baloia zuzenean ateko sakez, alboko sakez edo korner edo erpineko sakez jasotzen badu.

XII. ARAUA - FALTAK ETA KIROLKONTRAKO PORTAERA

1.- Zehapentzat aurreikusitako jaurtiketa libre guztiak zuzenekoak dira.

2.- Arbitroak, faltaren larritasuna baloratu ondoren, aurkako taldearen alde, edo falta egin den lekutik jaurtiketa libre edo, bestela, 13 metroen marratik HESI GABEKO jaurtiketa libre eman dezake.

3.- Faltak eta kirol kontrako portaera honako honela zehatuko dira:

Aurkako taldearen alde jaurtiketa libre emango da jokalariren batek hurrengo sei falta hauetako bat egiten badu eta arbitroak, ausartegi, arriskutsu edo indar gehiegi erabili del a uste badu:

a) Aurkakoari ostikoa ematea edo ematen ahalegintzea.

b) Aurkakoari zangozaba egin edo egiten ahalegintzea.

c) Aurkakoaren gainera jauzi egitea.

d) Aurkakoari jaukitzea.

e) Aurkakoa jo edo jotzen ahalegintzea.

f) Aurkakoa bultzatzea.

Jaurtiketa libre emango zaio aurkako taldeari, baldin jokalariren batek hurrengo lau falta hauetako bat egiten badu:

- Baloiatatik lehiatzerakoan aurkakoari ostikoa ematea baloia ukitu baino lehen.

- Aurkakoari oratzea

- Aurkakoari edo beste edozein pertsonari ttu egitea.

- Baloia nahita ukitzea eskuekin (atezainak bere atearen barruan dela edukitzen duenean izan ezik).



FUTBOL 7-ko ARAUTEGIA

Jaurtiketa librea falta egin den lekutik edo, arbitroak hala uste badu, 13 m-en marratik egingo da.

PENALTI JAURTIKETA

Jokalariren batek, goian aipaturiko hamar faltetako bat egiten badu bere penalti-arean (13 metro) penalti-jaurtiketa aginduko da, baloia non dagoen kontutan hartu barik eta baldin berori jokoan badago.

Orobat, penaltia adieraziko da aurkako taldearen alde, jokalariren batek, arbitroaren iritziz, hurrengo hiru falta hauetako bat egiten badu:

- Era arriskutsuan jokatzea.
- Aurkakoak aurrerantz egin dezan oztopatzea.
- Atezainak eskuekin atera dezan eragozte.

Falta horiek norberaren arean egin direlarik, arbitroak, hala behar duela baderitzo, 13 metroen marratik, hesi gabe eta falta egin den lekutik hurbilen dagoen puntutik jaurtitzea agindu dezake.

Halaber, jaurtiketa librea emango zaio aurkako taldeari, atezainak hurrengo bost falta hauetako bat egiten badu bere area barruan:

- Eskuetan atxikita duela 6 segundo baino gehiago igarotzea baloia jokoan ipini baino lehen.
- Jokoan ipini ondoren berriro eskuekin ukitzea baloia, bitartean beste ezein jokalarik ukitu ez duela.
- Baloia eskuekin ukitzea bere taldeko jokalariren batek oinez eman dionean.
- Baloia eskuekin ukitzea, taldekide batek jaurtitako alboko sakez zuzenean jaso ondoren.

- Denbora galtzea.

Falta horiek ere, 13 metroen marratik jaurtikiko dira, hesi gabe eta lehengo baldintza berekin.

MINUTU 2KO ALDE BATERAKO EGOZTEAREKIN ZIGORTU DAITEZKEEN FALTAK

- Kirol kontrako portaera edukitzea.



FUTBOL 7-ko ARAUTEGIA

- Desadostasuna adieraztea hitzez nahiz ekintzez arbitroen erabakiak.
- Joko Arauak behin eta berriz haustea.
- Jokoaren berrastea atzeraraztea.
- Korner jaurtiketan zein jaurtiketa librean arauzko distantzia ez errespetatzea.
- Joko-zelaian arbitroaren baimenik gabe sartzea edo berriro sartzea.
- Arbitroaren baimenik gabe nahita uztea joko-zelaia.

BEHIN-BETIKO EGOZTEAREKIN ZIGORTU DAITEZKEEN FALTAK:

- Joko zakar larria egitea.
- Portaera odol-gaiztoa edukitzea.
- Aurkakoari edo beste edozein pertsonari ttu egitea.
- Eskuarekin gola eragozte, edo gol egiteko aukera garbia zapuztea, salbuespen batekin, hots: horrelakoa atezainak egitea bere area barruan.
- Penaltia adieraziz zehatzen den falta eginez gol egiteko aukera garbia zapuztea jokalariaen aterantz doan aurkakoari.
- Hizkera iraingarri, oihes eta lizuna erabiltzea.
- Partidu berean bigarrenez jasotzea aldi baterako egozketa.
- Jokalaria behin-betiko kaleratua izan bada, futbol-zelaia eta aulkia utzi beharko du.

ARAU HONEN ERABAKI GEHIGARRIAK

1.- Penalti-jaurtiketa adieraziko da, atezainak, bere arean, baloia jaurtikiz aurkakoren bat jo edo jotzen saiatzen bada, hura jokoan dagoela.

2.- Jokalariak baloia atezainari burua, bularra edo belauna, etab. erabiliz eman diezaioke bere atezainari. Hala ere, arbitroaren iritziz, jokalaria batek berriazko amarru bat egiten badu Araua saihesteko, portaera kirol kontrakoa leporatuko zaio. Jokalaria minutu birako egotziko da eta beraren taldea 13 metroen marratik egingo den jaurtiketa librearekin zehatuko.



FUTBOL 7-ko ARAUTEGIA

3.- Jaurtiketa librea egiterakoan Araua saihesteko amarruren bat erabiltzen duen jokalaria kirol kontrako portaeragatik zehatuko da eta minutu birako egotziko. Berriro egingo da jaurtiketa librea.

Halako inguruabarretan, garrantzi-gabea da, ondoren atezainak baloia eskuekin ukitzen duen edo ez. Araua saihesten ahalegindu den jokalaria egin du falta.

HEZIGARRIA EZ DEN JOKABIDEA

Hezkuntza funtsezko tresna bat da gizarteak aurrera egiteko, eta komunitateko pertsona guztien ardura da, ez delako hezkuntza-zentroetan soilik eman behar den prozesu bat; umeen bizipen-eremu guztietan eman behar den prozesu bat da. Batez ere askatasun eremuetan edo eremu horietaz gozatzeko uneetan, balioak eta jokamoldeak eskuratzeko espaziorik onenak baitira.

Horregatik, Eskola Kirolaren barruko jardueretan **EZIN DA ONARTU** kirol-jardueretan parte hartzen duen inork (kirolariak, teknikariak, ikusleak) heziketa-lan horren kontrako ekintzarik egitea.

HEZIGARRIA EZ DEN JOKABIDETZAT joko da hau: eskola-umeek parte hartzen duten kirol lehiaketa batek dirauen bitartean, **JOKALEKUAREN BARRUAN EDO KANPOAN**, egiten den eta eskola-umeen hezkuntza integralaren kontrako den edozein ekintza. Bereziki, indarkeria fisikoa edo ahozkoa, edo kirolaren kontrako jarrerak.

ZIGORRAK:

Epailak izango du **Txartel Beltza** erakusteko ahalmena. Txartela gehien ikusten den lekuan erakutsiko du, ikusle eta parte-hartzaile guztiek ikus dezaten.

Txartela lehen aldiz ateratzen denean hau esan nahi du: jardueran hezigarriak ez diren jarrerak ematen ari direla jakinaraziko die parte-hartzaile guztiei, eta, jarrera horiek mantentzen badira, lehiaketa eten egingo dela.

Bigarren aldiz erakusten denean, kirolariei **PARTIDA AMAITUTZAT JO DELA** jakinarazteko izango da. Kasu horretan, aktan jaso beharko da gertatutakoa, zehatz-mehatz. Eskumena daukan diziplina-organoak jarriko du kirol-zehapena, halakorik jarri behar bada. Taldeetako bati edo biei jarriko die, kasuaren arabera.

XII. ARAUA - JAURTIKETA LIBREAK

Jaurtiketa libre guztiak zuzenekoa dira eta berorien bidez, falta egin duen taldearen aurkako gola egin daiteke zuzenean.

Jokalaria jaurtiketa libre egin duelarik bere 13 metroen gunetik barrutik, aurkako jokalaria guztiek gutxienez 6 metrora eta aipatu areatik kanpora egon behar dute jaurtiketa egiten den bitartean; baloia, 13 metroen gunetik irtendakoan egongo da



FUTBOL 7-ko ARAUTEGIA

jokoan. Baloiak areatik irteten ez badu, berriro egin beharko da jaurtiketa. Atezainak ezin jaso dezake baloia bere eskuetan gero jokora ateratzeko.

13 metroen gunetik kanpo egiten diren jaurtiketa libre guztietan, aurkakoak 6 metroko distantzia gorde behar du. Jokalariren bat distantzia hori baino hurbilago hurreratzen bada jaurtiketa egin baino lehen, arbitroak jaurtiketa geroratuko du, harik eta Araua bete arte.

Jaurtiketa librea egitean baloiak geldirik ego n behar du eta aterako duen jokalaria ezin jokatu dezake berriro, beste jokalariren batek jokatu baino lehen, eta, hala egiten badu, jaurtiketa librea adieraziko da beraren taldearen aurka, falta egin den lekuan.

Jaurtiketa libre guztietan baloia jokoan egongo da ostikoz jo eta mugitzen hasten den unean bertan.

XIII. ARAUA - PENALTI JAURTIKETA

Penaltia atetik 9 metrora seinalatutako puntutik jaurtikiko da, eta, jaurtiki baino lehen, jokalaria guztiek, jaurtiketa egingo duena, behar bezala identifikaturik berau, eta aurkako atezaina izan ezik, joko-zelaiaren barruan egon beharko dira, baina 13 metroen barratik at eta penalti puntutik gutxienez 6 metrora kokatuta.

Atezainak bere ate-marraren gainean egon beharko du, penaltia jaurtiko duenaren aurrean eta atearen zutoinen artean, baloia jokoan egon arte.

Penalti-jaurtitzailak aurrerantz joko du ostikoz baloia eta gero ezin dezake berriro jokatu, beste jokalaria batek ukitu arte. Baloia jokoan egongo da ostikoz jo eta mugitzen hasten den unean.

Behar izanez gero, jokoaren iraupena luzatu egin beharko da, lehenengo zatiaren amaieran zein partiduen amaieran, penalti-jaurtiketa egiten uzteko. Gola emango da, zutoinen artean eta langetaren azpitik igaro aurretik, baloiak zutoin bat zein biak edo langeta, edo atezaina bera ukitzen badu ere.

ZEHAPENAK: Arbitroak penaltia jaurtitzeko seinalea eman eta gero eta baloia jokoan ego n orduko hurrengo egoera hauetako bat gertatzen bada:

Jaurtitzailak hautsi Joko Arauak:

Arbitroak jokoak segi dezan utziko du.

- Baloia atean sartzen bada, jaurtiketa berriro egingo da.

- Baloia atean sartu ez bada, ez da jaurtiketa berriro egingo.

Atezainak hautsi Joko Arauak:



FUTBOL 7-ko ARAUTEGIA

Arbitroak jokoak segi dezan utziko du

- Baloia atean sartzen bada, gola baliokotzat emango da.
- Baloia atean sartzen ez bada, jaurtiketa berriro egingo da.

Egoera berean, faltak talde bateko zein besteko jokalariek egin, irizpide bera erabiliko da.

Penaltia jaurtitzen duen jokalaria baloia berriro ukitzen badu, bere taldearen aurkako jaurtiketa libre batekin zigortuko da.

Aurrerantz doala, baloia gauza arraroren batek ukitzen badu, berriz egingo da jaurtiketa.

Baloia joko-zelaian, atezainarengan, zutoinetan nahiz langetan errobotatu eta gero gauza arraroren batek ukitzen badu, jokia bote neutralez berrasiko da.

XIV. ARAUA - ALBOKO SAKEA

Alboko sakea jokia berrasteko modu bat da. Ezin eskuratu daiteke golik alboko sakez.

Alboko sakea emango da:

- Baloiak alboko sakea osorik zeharkatu duenean, dela lurrean zehar, dela airez, eta alboko marra zeharkatu duen lekutik aterako da.
- Baloia ukitzen azkena izan den jokolariaren aurkakoek egingo dute sakea.

PROZEDURA: Baloia jaurtitzen duen unean, jaurtitzailak honako honela egin beharko du:

- Jokalekurantz jarrita.
- Oin bien zati bat alboko marraren gainean edo hortik kanpo edukita.
- Esku biak erabiliz
- Baloia atzealdetik eta buruaren gainetik jaurtikiz.
- Sakea egin duenak ezin jokatu dezake berriro baloia, harik eta berori beste jokalariren batek ukitu arte.

Baloia jokoan sartu bezain laster egongo da jokoan.



FUTBOL 7-ko ARAUTEGIA

ZEHAPENAK: Baloia jokoan badago eta, beste jokalaria batek hura ukitu orduko, sakea egiten duenak baloia berriro ukitzen badu, jaurtiketa librea emango da aurkako taldearen alde, eta falta egin den tokitik aterako da.

Baloia jokoan badago eta sakea egin duenak nahita ukitzen badu baloia eskuekin, penalti-jaurtiketa adieraziko da, baldin eta falta beraren 13 metroen arean izan bada, ekintza hori atezainak egin ez badu, orduan 13 metroen marratik hesirik gabe egin beharreko jaurtiketa batekin zigortuko baitu.

Aurkako batek sakea egiten ari den jokalaria modu ez-egokiz adia galarazi edo oztopatzen badu, minutu birako egotziko da kirol kontrako portaera izateagatik. Arau honen aurkako beste edozein arau-urratzerako, sakea aurkako jokalaria batek egingo du.

XV. ARAUA - ATEKO SAKEA

Ateko sakea jokoa berrasteko modu bat da. Ateko sakez gol egin daiteke zuzenean, baina aurkako taldearen kontra baino ez.

Azkena ukitzen talde erasotzaileko jokalaria bat izan delarik, baloiak ateko marra osorik zeharkatu badu, dela lurrian zehar dela airetik, eta X. Arauaren arabera gol izan ez bada, ateko sakea adieraziko da.

PROZEDURA:

- Baloia ateko marrarekiko paralelo dagoen sake-marrako edozein lekutatik jaurtiko du talde defendatzaileko jokalaria batek.
- Aurkakoek 13 metroen areatik kanpo egon behar dute baloia jokoan egon arte.
- Sakea egin duenak ezin dezake berriro baloia ukitu, harik eta beste jokalariren batek ukitu arte.

- Baloia jokoan egongo da 13 metroen areatik kanpora jaurti denean.

ZEHAPENAK: Baloia 13 metroen areatik kanpora zuzenean jaurti ez bada, berriro egingo da sakea.

Ateko sakea egin duen jokalaria berriro jokatzen badu baloia areaz haraindi eta beste jokalariren batek ukitu baino lehen, aurkako taldearen aldeko jaurtiketa librea adieraziko da, eta falta egin den lekutik aterako da.

Arau honen aurkako beste edozein arau-urratzerako, berriro egingo da sakea.



FUTBOL 7-ko ARAUTEGIA

XVI. ARAUA - KORNER JAURTIKETA

Kornerra joko berrasteko modu bat da. Kornerez gol egin daiteke zuzenean, baina aurkako taldearen kontra baino ez.

Azkena ukitzen talde defendatzaileko jokalaria bat izan delarik, baloia ateko marra osorik

zeharkatu badu, dela lurrean zehar dela airetik, eta X. Arauaren arabera gol izan ez bada, kornerra adieraziko da.

PROZEDURA: Irten duen lekutik hurbilen dagoen banderatxoaren zirkulu laurdenaren barruan ipiniko da baloia.

- Ez da kendu behar banderatxoaren taketa.
- Aurkakoek baloitik gutxienez 6 metrora egon behar dute, berori jokoan egon arte.
- Baloia talde erasotzaileko jokalaria batek jaurtiko du.
- Baloia jokoan egongo da ostikoz jo eta mugitzen hasten den unean.
- Sakea egin duenak ez du berriro baloia jokatu behar, harik eta beste jokalaria batek ukitu arte.

ZEHAPENAK: Sakea egin duen jokalaria berriro jokatzen badu baloia eta beste jokalariren batek ukitu baino lehen, arbitroak haren aurkako taldearen aldeko jaurtiketa libre adieraziko du, eta falta egin den lekutik aterako da.

Arau honen aurkako beste edozein arau-urratzerako, berriro egingo da sakea.